



Gipuzkoako Foru Aldundiak COVID-19aren ondorioz Gipuzkoako kultur sektorea laguntzeko Piztu Kultura egitasmoa martxan jarri du. Egitasmo honen parte dira ekainaren 15etik 19ra eskaini diren on line formakuntza saioak.

Saio hauek K bulegoak hemendik aurrera eskainiko duen formakuntzaren parte dira. Helburua Gipuzkoako kultur eragileei beren sorkuntza eta garapenetan aurrera pausuak emateko laguntza eskaintzea da. Oraingo honetan proiektuak mantendu eta indartzeko kudeaketa aldetik lagungarriak diren klabeak eskaini dira erreferente diren adituen eskutik. Eva Moraga eta Marta C. Dehesa.

K bulegoa izan da saio hauetan errazte lanak eskaini dituen eta formakuntza 5 saio ezberdinez osatua egon da.

Informazio gehiago behar baduezue jarri harremanetan gurekin:

943 11 33 43

kbulegoa@gipuzkoa.eus

Ekainak 15-Aldundia/ Piztu Kultura neurrien aurkezpena

Saioei hasiera emateko, Maria Jose Telleriak Gipuzkoako Foru Aldundiko Piztu Kulturako planaren aurkezpena egin zuen eta Aldundiko kultur arloko laguntzak aurkeztu ziren.

Piztu Kulturari buruzko informazioa:

euskaraz:

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/4558908/15540871/PIZTU+dossierEUSKERA-centrado.pdf/502f493a-b2a2-fb40-4fee-41d999eb2e26>

gazteleraz: <https://www.gipuzkoa.eus/documents/4558908/15540871/PIZTU+dossierCASTELLANO-centro.pdf/b656bb47-b478-e882-73e6-0744607056e3>

Aldundiko Kultur hedapen eta sustapen arloko laguntzen inguruko informazioa:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/gestioak/laguntzak>

Meta deialdia:

<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/kultura/gestiones/meta>

Laguntzetara aurkezteko baliabide lagungarriak:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/gestioak/k-bulegoa/baliabideak>

K bulegoari buruz:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/gestioak/k-bulegoa/zer-da>

Ekainak 16-Oarsoaldea / Kulturarako eskaini diren laguntza guztien eskemaren aurkezpena.

Une hauetan kultur sorkuntza eta proiektuentzat erakunde desberdinek aurkeztu dituzten laguntzen aurkezpen bat egin zen Oarsoaldeako Garapen Agentziaren eskutik.

Enplegu arloan interesgarriak izan daitezkeen laguntzen berri ere eman zuten.

Saioetan aurkeztutako materiala: (oraingoz gazteleraz)

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/4558908/15804850/Otras+ayudas+y+subvenciones+CC%252cS.definitivo.pdf/25cf402f-ec24-d344-da97-7608cedd6ab2>

Ekainak 17-Kultur prekarietatearen aurrean nola indartu/ Eva Moraga.

Artistek eta kultur eragileek eta baita administrazioek ere bere proiektuen garapena indartzeko landu beharreko arloak adierazi zituen eta sektorearen sendotzerako lagungarriak diren klabeak partekatu zituen.

Eva Moraga abokatua da eta arte ederretan litzentziatua, bitartekaria eta Porypara zerbitzuaren zuzendaria. Artista eta kultur eragileen aholkulari eta formazio eta bitartekaritza aditua. Artistaren Estatutoaren sortze eta lanketa guztietan parte hartu du eta egun hainbat erakunde eta talde zein norbanakoen aholkularia da. Bere saioak hausnarketa sakon bat eragin zigun kultur sektorearen egoeraren inguruan.

Zeintzuk dira sakoneko arazoak? identifikatuak ditugu? Zein dimentsio dauka kulturaren prekarietateak? non isladatzen da? nola indartu eta ahaldundu gaitzke prekarietatearen aurrean? Covid 19aren aurretik nola zegoen sektorea? Alarma egoeran zehar, nola? eta ondoren, nola egongo da sektorea?

Galdera guzti hauei aurre egiteko hainbat klabe proposatu zituen:

Krisialdi berri honetan egoeraren azterketa bat egin nahi izan da eremu desberdinetan eta begirada desberdinetatik, denek arazo berdinarekin topo egin dutela esan zuen. Datu egokien falta, artikulazio falta, guzti honen aurrean antolatuta eta erantzuteko indar falta eta baita komunikazio sare egokien falta, erakundeak, eta talde zein elkarte desberdinak elkarlanean aritzeko kanal egokien falta.

Kaltetuenak sorkuntzaren oinarrian lanean daudenak (sorkuntza artistiko plastikoan, eszenikoan, literaturan, musikan...) izaten ari direla adierazi zuen. Kulturaren kudeaketan eta ekoizpenean hainbat praktikek badutela une hauetan beren jardura moldatzeko beste praktika batzuk baino erraztasun eta babes handiagoa. Eta hau landu eta zaintzeko lan haundia egin beharra dagoela. Lagungarria litzakeela politika kultural integralak eta osagarriak diseinatzea, kulturaren balio katean dauden praktika guztiei babes eman ahal izateko.

Kultur sektorea artikulatzen duten sare eta ohiturak berreraiki behar direla esan zigun. Antolatuta egin behar garela edo gure parte hartzea indartu behar dugula jadanik lanean dabiltzan eta babes eskaintzen duten eremu, zein elkarteetan. Indibidualki gure ezagutzak aberastu egin behar ditugula, indartsuagoak izateko kudeaketari dagokionez, konbikzio haundiagoarekin gure lanaren defentsa eta garapenean modu iraunkor eta kalitatezko batean murgiltzeko. Landu beharreko gaien artean sorkuntza eta proiektuen diru sarrerak eta gastuen kudeaketa egokia egiteko modu egokiak barneratuak izan behar ditugula eta gure lanak denboran iraunkorrak izateko moduak aztertu eta landu behar ditugula. Administrazioek entzute aktibotik, ezagutza eta enpatia gehiago izan behar dutela sektorearen balioaren kate guztian lan egiten duten eragileekin.

Gizarte Segurantzako markoa eta fiskalitatearena ez dagoela pentsatua eta artikulatua kulturaren garapen iraunkor eta jasangarri baterako eta hau guztia ere landu beharreko gai bat dela. Urgentziazko lana dela dio Artisten Estatutoaren informea martxan jartzea eta lantzen jarraitzea eta aplikatzea.

Bestalde kulturaren garapenean dauden ohitura eta praktika desegokien inguruan hausnartu eta erreparaketa lan baten urgentzia ere azpimarratu zuen; sektore asko elkarren artean urrun eta desadostasunekin agertzen dira, elkarlanerako zubiak eraikitzeke zailtasunak adieraziz. Arazoa besteengan dagoela pentsatzeak gure ardura eremuetatik ateratzen gaituela eta daukagun neke eta ahulezia gehituta, zaila dela egoera honi aurre egitea.

Bere azken proposamena hausnarketa intimo bat izan zen, nola gauden landu eta zer behar dugun identifikatzea. Nire ezagutzak indartu eta aberastea, honako gai hauen lanketan murgilduz; eskubideak, betebeharrak fiskal eta legalak, proiektuen iraunkortasuna, komunikazioa eta bitartekaritza, beste hainbaten artean.

Ekainak 18- Gure sorkuntza eta lanbidea zaintzeko tresnak. / Marta G. Dehesa/ Cola de perro.

Proiektu artistiko eta kulturalak denboran zehar mantentzeko eta beraien garapena ahalbideratzeko, badira zaindu beharreko oinarritzko lanketa batzuk kudeaketari dagokionez. Kudeaketa egoki batek proiektuaren garapenean positiboki eragiteko klabeak partekatu zituen.

Saioan partekatutako informazioa:

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/4558908/15804850/kbulegoa-presentacion-coladeporro+%281%29.pdf/10d3431b-1e5d-6791-932b-2a09a173a9da>

Ekainak 19-Kultur Kudeaketaren inguruan zuzeneko aholkularitza saioa; galderak eta erantzunak. / Marta G. Cola de perro.

Saioa astean zehar landutako gaien inguruan sortutako galderak egiteko pentsatu zen. Hala ere, aurreko egunean 3 gai garrantzitsu argitu gabe gelditu ziren eta saioa horiek esplikazioarekin hasi zen. Gero, zuzeneko aholkularitza egin zen eta bertan gai ezberdinak galdetu zituzten eragileek: egile eskubideen inguruan, lizentzia ezberdinak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta bertako epigrafe ezberdinak etabar.